

Izen bat asmatu edo aukeratu nahi nuen gure maskota berriarentzat eta azkenean artikulu honen bukaeran daukazuen izen-zerrendatxo osatu dut. Egia esan, ez da erraza familia bateko kide guztiak ados jartzea, maskota berriari izena jartzeko orduan. Bati gustatzen zaiona beste bati akaso ez, eta abar.

Bestalde, zerrendan agertzen diren izen bakan batzuk pertsona-izenak ere badira, asmatu ditudanean horretaz ohardun izan ez banaiz ere. Dena den, ez dugu horrengatik haserretu behar. Egia esan, inguruko hizkuntzetan ere fenomeno hau puri-purian dago; bota begiradatxo bat Interneten eta berehala konturatuko zarete zer esan nahi dudan:

[https://www.yasss.es/mascotas/perros/nombres-de-humanos-mas-usados-para-perros-be5m\\_18\\_3035820050.html](https://www.yasss.es/mascotas/perros/nombres-de-humanos-mas-usados-para-perros-be5m_18_3035820050.html)

<https://www.elmundo.es/yodona/lifestyle/2021/05/08/60913e3efc6c836e7f8b458b.html>

Areago, alderantzizko kasuak ere badaude, hau da, animalia-jatorria duten pertsona-izenak egon badaude:

<https://animalear.com/b/los-nombres-de-personas-mas-animales>

Den-denak balio du, gure txakurtxoaren izena xisteratik ateratzeko bada: filmak, literatura, umore beltza, umore ona, umore kaxkarra, ingelesa, hizkuntza klasikoak, esperantoa, futbolariak, boxeolariak, pertsonaia ospetsuak, izen geografiko, historiko edota mitologikoak... eta nola ez, tamaina handiko eta tamaina txikiko txakurrentzako izenak, arrentzako eta emeentzakoak... Denetatik alegia. Hor nonbait ere topatuko dituzue gehien erabiltzen omen diren 10 txakur-izenak, edo pandemian gehien erabili direnak, e.a., e.a.

<https://blog.mascotaysalud.com/nombres-de-perros/>

Nolanahi ere, den-denak ez du balio. Eta Interneten aurkitu dudan webgunea horren froga da, bertan txakur-izen modura eskaintzen diren euskal izenak pertsona-izen peto-petoak baitira. Ez dakit web gune horren atzean dauden arduradunak “baldar” batzuk diren edo

“asmo txarreko” batzuk diren. Haiak jakingo dute zer diren. Nolanahi ere, gorroto-delituak larriak eta salatu beharrekoak direla ez luke inork ahaztu behar. Hauxe duzue aipatutako webgunea (eta susmoa dut ez dela era horretako webgune bakarra):

<https://demascotas.info/razas/perros/informacion/nombres/en-euskera/>

Hori alde batera utzita, nire ustez, “objektu” izenak direnean, edota ezaugarri fisikoak aditzera ematen dituzten izenak direnean, errazagoa da horrelako izen bat gure maskotekin ere erabiltzea. Naturarekin zerikusia duten izenak ere badaude, hizkuntza guztietan, eta pertsonekin zein animaliekin erabiliak dira. Nire zerrendan, esaterako, “Ur” eta “Izar” izenak jaso ditut (geroago ohartu naiz pertsona-izenak ere badirela). Ea noiztik erabiltzen diren euskaraz? Ba... ez dakit. Baina nik esango nuke pertsona-izenen animismoa fenomeno nahiko berria dela gurean, behintzat gaur egun fenomeno horrek hartu duen dimentsioan.

Hala eta guztiz ere, pixka bat zehaztu beharko litzateke esan berri dudana. Izan ere, izenen animismoa gizakia bezain zaharra izan daiteke. Erlijioak agertu zirenean, ordea, izenen mailako animismo hori ziur aski gainbeheran sartu zen. Eta hortik aurrera, santu-izenak eta Elizak ontzat emandako izenak hasi ziren erabiltzen familia guztietan<sup>1</sup>.

Zentzu horretan, pertsona-izenen animismora bueltatzeak gizakion erroetara bueltatzea esan nahi luke, hau da, izadiak transmititzen dizkigun balioetara bueltatzea, eta horrenbestez, erlijioaren balioei uko egitea. Eta gauza gehiago ere esan nahi lituzke; esaterako, izadiaren garrantzia aintzatestea, zientziari lehentasuna ematea (zientziaren bidez ezagutzen baita izadia hobekien), eta abar.

Baina, zer da izadia ezagutzea? Nire ustez, izadiaren gaineko bi ezagutza-mota daude. Alde batetik, ezagutza intuitiboa dago, hau da, geure zentzumenekin denok hautematen duguna; eta beste alde

---

<sup>1</sup> Aitona-amonen edota gurasoen izenak jartzeko ohitura zaharra ahaztu gabe, noski.

batetik, izadiaren gaineko ezagutza zientifikoa dago (gure begiez harantzagoko izadi bat begi aurrean jartzen diguna).

Eta, zer dakar berekin ezagutza bikoitz honek? Lehenak izadiaren idealizazioa dakar, onerako zein txarrerako. Eta bigarrenak izadiaren gaineko ezagutza objektiboa dakar (hau ere onerako zein txarrerako –izadiaren merkantilismoa, kasu–).

Nolanahi ere, pertsona-izen modura soilik erabili diren izenekin zailagoa da horrelako kasuak topatzea, nahiz eta ezinezkoa ez izan. Nik ez dut gogoko, hala ere, pertsona-izen peto-petoak erabiltzea animaliekin. Esaterako, Iñaki, Izarne, Nahikari, Joakina, Eneko, Jon, Mikel, Xabier eta mota horretako izenak ez nituzke sekula santan erabiliko animaliak izendatzeko. Ez asmo onarekin ez asmo txarrarekin. Ez euskaraz ez gaztelaniaz.

Hala ere, ziur nago hor nonbait egongo dela “Lorentzo” izeneko loro bat, “Anastasia” izeneko kateme bat eta “Kassius (Klay)” edo “Kaligula” izeneko pitbull bat.

Horrez gain, gure maskotentzat asmatzen ditugun izenak ikusita, beste zerbait ere jartzen da agerian: gure maskoten humanizazioa. Eta orain dator galdera handia: hori, ona ala txarra al da? Hau da, ondo dago gure maskotak “humanizatzea”? Garbi dago txakurrak, esaterako, ez direla gizakiak, eta gizakiak balira bezala haiek ikustea, tratatzea eta izendatzea errealitatearen distortsioztat jo daitekeela, txakurrengan jokabide-arazo larriak eragiteaz gain.

Horrek beste arazo baten aurrean jartzen gaitu: gure maskotetan baloratzen ditugun ezaugarrietako asko gizakiongan baloratzen ditugun ezaugarriak direnez, gizakien eta animalien artean halako mimetizazio-suerte bat gertatzen da (baita izen-mailan ere). Mimetizazio horrek, ordea, interesatzen zaigunean bakarrik funtzionatzen du; esaterako, gure maskotekin funtzionatzen du, baina ez du funtzionatzen gure biziraupenerako eta gure ekonomiarako garrantzitsuak diren animaliekin, adibidez, abereekin.

Amaitzeko, neure buruari galde egiten diot ez ote den komeni maskota-izenen afera honetan ordena pixka bat jartzea. Eta horrela, ahal den neurrian, saiatu ekiditen maskotek eta pertsonen izenak partekatzea; txakurtxo batek, esaterako, ezin dezan Iñaki, Cristina edo Antonio izena izan. Erraza litzateke: maskota inskribatzeko orduan, izapide hau al baitariaren bidez egin ohi denez, al baitariak begiratu beharko luke izen-erregistro informatizatu batean, eta jabeak bere maskotari jarri nahi dion izena pertsona-izen peto batekin bat etorriko balitz, izapidea atzera bota. Tokiko gobernuek maskota-izen zerrendak argitaratzea ere ondo legoke, mota horretako egoera “desatseginak” ekiditeko.

Tira ba, ez zaituztet gehiago aspertu nahi. Hemen duzue gure maskota berriarentzat bururatu zaidan izen-zerrendatxoa:

**Ur** (bereziki egokia ur txakur batentzat. INE-ren arabera, gaur egun 122 pertsona –gizonezkoak denak– deitzen dira Ur, eta horien batez besteko adina 9,1 urtekoa da. Beraz, agian hobe Ur izena ez erabiltzea maskotekin<sup>2</sup>)

**Nai** (nahi ukan aditzetik eratorria)

**Txintxo** (espero dut benetan zintzoa izatea...)

**Yori** (jori hitzetik eratorria, konnotazio onekoa)

**Fida** (fidakorra, fidagarria...)

**Fidel** (ez du azalpenik behar)

**Xaki** (marka, seinale esan nahi du, txakur batek utziko dizuna, harekin benetan ondo moldatzera)

**Xalo** (txakurrak xaloak izan ohi dira, oro har; baina horrek ez du esan nahi tontoak direnik)

**Kiri** (hitz hau asmatua da. Dena den, kasualitatez-edo, bizkaieraz “ordena” hitzaren parekoa omen da. Egia esan, txakur bat etxera

---

<sup>2</sup> Nolanahi ere, nire ustez ekidinezina da pertsona-izenak eta maskota-izenak askotan bat etortzea, batez ere gaur egungo onomastikak hartu duen joera naturalistiko, animista eta poetikoa kontuan hartuta.

ekartzeak ordena pixka bat jarriko du zure bizitzan, txakurrentzat oso garrantzitsua baita errutina bati, ordena bati segitzea)

**Izar** (beltz-beltza bada, bilatu beste izen bat, mesedez. INE-ren arabera, gaur egun 906 emakume eta 152 gizon deitzen dira Izar, eta horien batez besteko adina 10,9 urtekoa eta 16,5 urtekoa da, hurrenez hurren. Beraz, agian hobe Izar izena ez erabiltzea maskotekin)

**Izpi** (oso potoloa bada, aldatu izena ala jarri dietan)

**Hego** (Bi txakur izanez gero, Hego eta Ipar, esaterako)

**Biur** (Bihurri hitzetik eratorria. Etxera txakurkume bat ekarri baduzu, ez du azalpenik behar)

**Aldi** (Gure bizitzarekin alderatuta, txakurrak alditxo batez bizi dira... Gozatu eta ondo tratatu ditzagun, beraz, gurekin diren bitartean)

**Alai** (oso ipurterrea bada, bataiatu berriro)

**Laida** (hitz asmatua da. “Laika” txakur-izen ospetsuak iradokiko ote zidan, inkontzienteki bada ere...? Eme-soinua du; akaso erdararen eraginez...)

**Gure** (izen horrekin garbi dago txakurra ate handitik sartuko dela bere familia berrian. Oso bihurria bada, hasi Aita Gurea erreztatzen...)

**Tini** (erdal pertsona-izenaren ukitua du baina polita da)

**Urdin** (bereziki egokia ilaje gris, errauskara duten txakurrentzat)

**Xira** (izen hauxe jarri diogu gure txakurkumeari; txakur emea da, nahiz eta generoz haragoko izena izan daitekeen. Alabak “Kira” izena proposatu zuen, erdaraz oso zabaldua omen baitago txakur-izen modura<sup>3</sup>. Baina Kira izenak “kirats” hitza ekartzen zidan gogora eta hori ezin nuen jasan —gehiegikeria da, beharbada, “Kíra” eta “kiráts” soinu aldetik nabarmen ezberdinak dira eta—. Orduan, “K” letraren ordeaz “X” letra sartu nion: Xira. Eta kasualitatez edo,

---

<sup>3</sup> Kira o Kyra persiar jatorria duen emakume-izen bat da. Izenaren esanahia aldatu egiten da hizkuntza batetik bestera izan duen eboluzioan, baina eguzkitsu, alai, distiratsu esan nahi du. Gaur egun, jende askok Kira izena jarri dio bere maskotari, berez pertsona-izena izan arren.

“huntz” hitzaren sinonimoa suertatu da (“xira” batez ere ipar euskal herrian erabilia da). Bestalde, xira edo huntza oso landare berezia da; mota guztietako azaleretan “errotzeko” gaitasuna du, azalera zakarrak —muru soilak eta horma ziztrinak— eder bihurtuz. Antzina, landare magikotzat eta fideltasunaren ikurtzat zeukaten. Beraz, “karanbola” batzuk direla medio, izen polit, iradokitzaile bat atera dela esango nuke nik. Badakit “zira” hitzarekin duen hurbiltasun fonetikoa ere hor dagoela, baina aizue, den-dena ezin da eduki! Dena dela, “Xira” izenak zer esan nahi duen galdetzen didatenean, “ez dakit” edo “ezer ez” erantzuten dut)

**Kuxbi** (izen hau gure aurreko txakurtxoaren omenez bururatu zait. Kuxki zuen izena, eta “Kuxki-bi” izenaren laburdura da, Kuxbi alegia)

Azkenik, ez ditugu betiko maskota-izenak ahaztu behar, politik izateaz gain ez baitigute inorekin haserretzeko bide emango: Pintto, Txuri, Ilun, Bat, Beltz, Bixkor, Txiki, Hiru... Izen hauetan aski agerian da zeinen pragmatikoak izan diren garai bateko euskaldunak euren maskotak “bataiatzeko” orduan.

Hala ere, gustatuko litzaidake norbaitek txakur-izenei buruzko ikerketatxo bat egitea, jakiteko pixka bat zeintzuk izan diren gure herrian gehien erabili diren txakur-izenak, garaiz garai eta kalean nahiz landa-eremuan. Ea norbait animatzen den.